



SEGURBIDE



Ezkerraldeko segurtasun-egoerak gero eta kezka handiagoa sortzen du biztanlerian. Azken urteetan izandako bortxaketek, lapurketek eta baita hilketek ere egoera are larriagoa bihurtu dute. Arazo horiek guztiek eragin zuzena dute gure egunerokoan, eta beldurra eta mesfidantza sortzen dituzte, adibidez, kalean bakarrik ibiltzean. Horregatik, SegurBide aplikazioa sortzea ideia egokia iruditzen zaigu: aplikazioaren helburua da erabiltzaileak etxerako bidean pertsona fidagarri batekin edo talde batekin komunikatuta sentitzea, segurtasuna handitzeko.

Aplikazioaren bidez (programazioaren eta geokokapenaren bitartez), erabiltzaileak norbaitekin harremanetan jarri ahalko du bere ibilbidean zehar, edo bestela, beste pertsona batzuekin talde seguru bat osatu eta haiekin batera leku batetik bestera mugitzeko. Gainera, aplikazioak izango dituen ezarpen eta balorazio-sistemen bidez, beste erabiltzaile batzuen fidagarritasun-maila kontsultatu ahalko da.

Merkatu ikerketa egin ondoren; Barakaldo Beldur Ezek arrisku-egoeren aurrean jarduten du, Polizia ohartarazteko aukera emanez eta izuaren botoiaren bidez berehalako erantzuna emanez; eraso sexistetan zentratzen da, 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta puntualki erabiltzen da, gizarte-interakziorik gabe. Aldiz, SegurBide prebentziozko ikuspegia hartzen du: adin guztietako pertsonei ohiko joan-etorrietan lagunduz eta talde seguruak sortuz, pertsona fidagarriekin kontaktua izatea eta erabiltzaileen interakzio eta balorazioaren bidez, horrela segurtasun konstanteagoa eta hurbilagoa eskainiz.

Balio-faktoreei dagokienez, aplikazioa doakoa izango da. Hala ere, nahi duenak harpidetza bat erosi dezake, zeinek aukera gehiago eta funtzio eksklusiboak eskuratzea ahalbidetuko duen. Kalitateari dagokionez, garapen maila ertaina erabiliko genuke: aplikazioak modu eraginkorrean eta segurtasunez funtzionatzeko nahikoa litzatekeena. Gainera, erabiltzeko oso erraza izango da, eta hala ere, behar duenari laguntza edo azalpenak emateko prest egongo gara.

Azkenik, proiektu hau ezker aldean segurtasunik eza sentitzen duen edozein pertsonari dago zuzenduta, adin guztietakoei eta gizarteko hainbat talderi, besteak beste, LGTBQ+ komunitateari edo emakumeei.